

**LAN BATZORDE IREKIAK****TALDEA****OBRA BATZORDEA****IRAUPENA****2 ordu****EGUNA****2017-02-15****GAIA****DEIALDIA****PARTE HARTZAILEAK**

Endika Igarzabal

Iñaki Etxezarreta

Oiane Arratibel

Xabier Barriola

Nikolas Igarzabal

Iñaki Maiz

Jose Kruz Baztarrika

Iñaki Oiarbide

Eusebio Igarzabal

Felix Maiz

**ERABAKIAK****GAIA****EKINTZAK****ARDURA  
DUNA****NOIZKO****PALANKAKO  
ZABORTEGIA**

- Mutiloan herri batzarra egin dute baina ez dakigu zer erabaki duten. Udala enteratzen ari da ea bide judizialean ze aukera izango lituzkeen beraien alde ateratzeko.

**FRONTOI AZPI**

- Santi Peñalbarekin hitz egin da, eta bere arabera bera ia ez zegoen udaleko teknikari. Aldaketa ia eginda omen zegoen.
- Eskoileraren altuera handitu behar izan zela (3 tik 6 metrora) kontatu digu, urbanizazioko aldapa %6koa geratu zedin, legeak eskatu bezala.
- Udala jakinaren gainean omen zegoen eskoilera udalarena izango zela.

**IRIZAR**

- Ez dago berririk. Errekatxoa tapatu ezinik dabilta.

**ELUR PROTOKOLOA**

- Udalaren aseguru aldatzekotan gabilta (ia 2000€ merkeago eta estaldura zabalagoa).
- Elurra kentzeari dagokiona ere aseguru honen barruan sartuko da.
- Aldundiarekin hitz egin da baina, ez dute agintzen goizean goiz garbituko luketenik, errepidea ez dagoelako lehen mailan. Beraz, herri mailako elur protokoloarekin aurrera jarraituko da.

**ARGITERIA**

- Tierrako kablea hilabete honen amaierarako jartzekotan da Aizkorpe.
- 2017an ere kontsumoa ez da jaitsi, baizik eta igo egin da. Goienerrekin eta Aizkorperekin batera jarraipena egingo

<p><b>APARKALEKUA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurrekontu bat badaukagu, baina oso garestia. 40 kotxe sartzeko 326.000€ko aurrekontua dago, beraz, momentuz ez da ezer egingo.</li> <li>• Baltsalekuk ondoko autobus geltokiak 4700€ko aurrekontua dauka, eta kotxeentzako momentuz ez da gehiago landu. Beste prioridade momentu honetan herri mailan.</li> </ul>		
<p><b>FUTBOL ZELAI INGURUA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Diru laguntza aldetik, beste repeska bat egin behar dute, beraz, berriro sartu da proiektua lehiaketan, nahiz eta obra ia amaituta egon.</li> <li>• Udaberriari begira jarriko dira eskura kirol desberinetarako materiala.</li> </ul>		
<p><b>AZTIRIKO SARRERA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Goimenez sartu zen proiektua baina ez digute laguntzarik eman.</li> </ul>		
<p><b>HERRIBIDEAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Badauzkagu eskaera batzuk aurtengo urterako. Herriko baserri bideen diagnostiko-proiektua eginda dago, eta horren arabera aukeratuko dira egin beharreko obrak.</li> <li>• Obra batzordean landuko dira proposamenak.</li> </ul>		
<p><b>MINAKO BIDEA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mutiloako lurretatik basoak ateratzen ari dira, eta udalari behin baino gehiagotan esan zaion arren, ez dute kasurik egin.</li> <li>• Azkenean, egurzaleari deituko zaio eta abala eskatu.</li> </ul>		
<p><b>URKIOLA GAINEKO ZABORTEGIS</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berriro dena nahastu da. Zabor ugari dago, denetik dago botata.</li> <li>• Sasieta, GHK... tokatzen zaionarekin hitz egingo da behingoz kontu honekin amaitzeko.</li> </ul>		
<p><b>ZABOR GUNEA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sasietaren aldetik ez dago arazorik.</li> <li>• Udalak tokia jarri beharko luke, ea toki egoki bat non izan liteken landu beharko da.</li> <li>• Lehenik gunea definitu beharko da: neurriak, hesitua... eta gero hasiko gara kokapena lantzen.</li> </ul>		
<p><b>LANDA GARAPEA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Proiektuaren bigarren fase bat egingo da aurten. Terreno bakoitza norena den, zer erabilera duen... aztertuz.</li> </ul>		
<p><b>EIT INSPEKZIOA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zerrenda bat bidali digute, Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa zein baserrik pasa beharko duten adieraziz.</li> <li>• Epe bat dago denek pasatzeko. Guztira 68 etxe daude Gabirian.</li> </ul>		
<p><b>RED ELECTRICA ESPAÑOLA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Linea berria egiteko proiektua ekarri digute. Ez dago atzera bueltarik, Gueñes eta Itsaso lotuko dituen linea 2018an egingo dute.</li> <li>• Orain, lurjabe afektatuekin harremanetan jartzen hasiko dira,</li> </ul>		

	<p>datozen hilabeteetan.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Gabiriko lurretan 7 poste jarriko dituzte</li> </ul>		
<b>OSTATU</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Diru laguntza poltsa bat ateratzera doaz, eta Ostatuko proiektua bat dator eskakizunekin. %80a arteko diru laguntza litzateke.</li> <li>Aurre-eskaera bat sartuko dugu arkitektoak prestatu duen proiektuarekin.</li> <li>Ostatuan, beheko solairuari berritu bat ematea da asmoa, orain dagoen moduan, ezin da inor berririk sartu, ez ditu baldintza minimoak betetzen. Aurrekontua 90.000€koa da, baina gauza guztiak ezingo dira egin.</li> <li>Zenbait gauza auzolanean egiteko aukera ikusten da, eta zenbat jende egongo litzateken ikusteko, zerrenda bat irekiko da prest dagoen jendeak izena eman dezan. Apuntatzen den jende kopuruaren arabera gauza gehiago edo gutxiago egingo dira auzolanean, udala ez delako gauza guztietara iristen.</li> <li>Prestatu den aurrekontua erakutsi da batzordean, gauza bakoitza zenbat kostako litzateken esplikatur.</li> <li>Asmoa, apirilaren 3an itxi eta 21ean irekitzea da. Ez dago asti handirik beraz mugitu egin beharko da.</li> </ul>		

Hurrengo bilera: martxok 22, 19:00tan